Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

4005

AGINDUA, 2009ko ekainaren 30ekoa, Kulturako sailburuarena, 2009an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako programen kontura diru-laguntzak ematea arautzen duen Kultura sailburuaren 2008ko abenduaren 24ko Agindua aldatzeko dena.

Kultura sailburuaren 2008ko abenduaren 24ko Aginduaren bidez, 2009an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako programen kontura diru-laguntzak emateko deia egin zen (EHAA, 247 zk., 2008ko abenduaren 26koa).

Aipatutako Aginduaren azken xedapeneko bigarren idatz-zatian aurreikusten da Aginduaren II. (Euskalgintza deialdia), III. (Hedabideak deialdia) eta IV. (IKT deialdia) Kapituluetan aurreikusitako diru-laguntzen eraginkortasuna Europako Batzordeak baimendua izan edo baimendutzat ematearen menpe dagoela.

Europar Batasunaren Sortze Itunaren 88. artikuluan jasotakoaren arabera, aipaturiko diru-laguntzen berri eman zen eta komunikazio horren ondorioz, Europako Batzordeak aldatzeko bi gomendio eman zituen.

Europako Batzordeak Kultura sailburuaren 2008ko abenduaren 24ko Aginduaren bitartez deitutako diru-laguntzen deialdiari egindako oharrak aintzat harturik, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– 2009an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako programen kontura diru-laguntzak ematea arautzen duen Kultura sailburuaren 2008ko abenduaren 24ko Aginduaren 18. artikuluaren 1. paragrafoaren azken zatiari, 27. artikuluaren azken zatiari eta 38. artikuluaren 1. paragrafoaren azken zatiari idazkera berria eman zaie eta honela geratzen dira:

«Kanpoan gelditukо dira Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basquek hizkuntza normalkuntzarako sinatutako hitzarmen markoaren 2009ko diru-laguntzen deialdiaren erakunde onuradunak.»

2. artikulua.– 2009an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako programen kontura diru-laguntzak ematea arautzen duen Kultura sailburuaren 2008ko abenduaren 24ko Aginduaren 3. artikulua aldatu da, laugarren atal bat gehituz:

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

4005

ORDEN de 30 de junio de 2009, de la Consejera de Cultura, de modificación de la Orden de 24 de diciembre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones para el año 2009 para los programas gestionados por la Viceconsejería de Política Lingüística.

Por Orden de 24 de diciembre de 2008, de la Consejera de Cultura, se convocaron las subvenciones para el año 2009 para los programas gestionados por la Viceconsejería de Política Lingüística (BOPV n.º 247, de 26 de diciembre de 2008).

En la disposición final segunda de la citada orden se prevé que la efectividad de las ayudas contempladas en los Capítulos II (convocatoria Euskalgintza), III (convocatoria Hedabideak) y IV (convocatoria IKT) queda condicionada a que el régimen de ayudas reciba la autorización de la Comisión Europea.

Conforme a lo previsto en el artículo 88 del Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea, se procedió a comunicar el citado régimen de ayudas y, como resultado de dicha comunicación, la Comisión Europea realizó dos recomendaciones de modificación.

En vista de las observaciones realizadas por la Comisión Europea al régimen de ayudas convocado mediante Orden de 24 de diciembre de 2008, de la Consejera de Cultura,

RESUELVO:

Artículo 1.– Modificar el párrafo final del apartado 1 del artículo 18, el párrafo final del artículo 27 y el párrafo final del apartado 1 del artículo 38 de la Orden de 24 de diciembre de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones para el año 2009 para los programas gestionados por la Viceconsejería de Política Lingüística, que quedan redactados de la siguiente forma:

«Quedan excluidas las entidades beneficiarias de la convocatoria correspondiente a 2009 de ayudas a la normalización lingüística desarrollada al amparo del convenio marco suscrito entre la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco y Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basque francesa.»

Artículo 2.– Modificar el artículo 3 de la Orden de 24 de diciembre de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones para el año 2009 para los programas gestionados por la Viceconsejería de Política Lingüística, añadiendo un cuarto apartado:

«4.– Laguntza-deialdi honetatik kanpo geratzen dira ondoren adierazten diren estatu laguntza erregimenaren bidez legez kanpoko eta bateraezinak diren dirulaguntzak jaso dituzten erakundeak: Araba I, Araba II eta Araba III (CR 48/99, CR 49/99 eta CR 58/99); Gipuzkoa I, Gipuzkoa II eta Gipuzkoa III (CR 50/99, CR 53/99 eta CR 59/00) eta Bizkaia I, Bizkaia II eta Bizkaia III (CR 52/99, CR 54/99 eta CR 60/00) baldin eta jasotako diru-laguntza eta dagozkion interesak bloketatutako diru-kontu batera itzuli ez badituzte.»

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kulturako sailburuari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 30a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

«4.– Quedan excluidas de esta convocatoria aquellas entidades que hayan percibido alguna de las ayudas ilegales e incompatibles de alguno de los regímenes de ayudas estatales siguientes. Araba I, Araba II y Araba III (CR 48/99, CR 49/99 y CR 58/99); Gipuzkoa I, Gipuzkoa II y Gipuzkoa III (CR 50/99, CR 53/99 y CR 59/00) y Bizkaia I, Bizkaia II y Bizkaia III (CR 52/99, CR 54/99 y CR 60/00), que no hayan procedido a su reembolso o depósito en una cuenta bloqueada junto con los intereses correspondientes.»

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación, o bien, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de dicha jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir, asimismo, de día siguiente al de su publicación.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2009.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.